# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LURRALDE-ANTOLAKETA ETA GARRAIO-SAILA

1272

Ekainaren 4eko 159/1985 DEKRETOA, Gipuzkoako eta Bizkaiko Kondaira-Lurraldeetatik Autonimia-Elkarte Osorako Erakundeetara eskuz-aldatutako garraio--alorreko zerbitzuak Lurralde-Antolaketa eta Garraio-Sailari atxikitzeari buruzkoa.

Martxoaren 5eko 47/1985 eta Martxoaren 5eko 57/1985 Dekretoen bidez, Eusko Jaurlaritza/Gipuzkoako Foru-Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritza/Bizkaiko Foru-Diputazioaren arteko Aginte-Eskuraketetarako Bitariko Batzordeak hartutako Erabakiak onartu ziren. Erabaki horietan, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeek garraio-alorrean dituzten agintepideei dagozkien zerbitzu, lanarigo, ogasun, eskubide eta betebeharrak zehazten dira.

Beraz, Jaurlaritzaren egitekoak eta ihardutze-alorrak zehazten dituen Urtarrilaren 27ko 5/1985 Dekretoan agintzen denaren arauera, bidezko gertatzen da eskuz aldatutako zerbitzuak Elkarte Osorako Erakundeetako ihardutze-sailari atxikitzea, zeren alor horren agintepideak bait dira.

Hori dela eta, Lurralde-Antolaketa eta Garraio-Sailburuaren saloz, Jaurlaritza-Batzordeak 1985.eko Ekainaren 4an egindako bilkuran onartu ondoren, zera

ERABAKITZEN DUT:

*Atal bakarra.*– Gipuzkoako eta Bizkaiko Kondaira-Lurraldeetatik Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeetara eskuz aldatutako Garraio-alorreko agintepideak, zerbitzuak, lanarigoa, ogasunak, eskubideak eta betebeharrak Lurralde-Antolaketa eta Garraio-Sailari atxikitzen zaizkio, Martxoaren 5eko 47/1985 eta Martxoaren 5eko 57/1985 Dekretoetan jarritakoaren indarrez Aginte-Eskuraketetarako Bitariko Batzordeak onartutako Erabakietan eta Eraskinetan aipatzen diren baldintza eta moduan.

*Azken Erabakia.*– Dekreto hau argitara dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, 1985.eko Ekainak 4.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde-Antolaketa
eta Garraio-Sailburua,
JOSE RAMON ESTOMBA GOIKOETXEA.

## DEPARTAMENTO DE POLITICA TERRITORIAL Y TRANSPORTES

1272

DECRETO 159/1985, de 4 de Junio de 1985, por el que se adscriben al departamento de Política Territorial y Transportes, los servicios traspasados de los Territorios Históricos de Guipuzcoa y Vizcaya a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de transportes.

Por Decretos 47/1985, de marzo, y 57/1985, de 5 de marzo, se aprobaron los Acuerdos de la Comisión Mixta de Transferencias, Gobierno Vasco-Diputación Foral de Guipúzcoa, y Gobierno Vasco-Diputación Foral de Vizcaya, por los que se determinan los servicios, personal, bienes, derechos y obligaciones que se traspasan de los Territorios Históricos a las instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de Transportes.

En consecuencia, y en relación con lo dispuesto en el Decreto 5/1985, de 27 de enero, sobre determinación de funciones y áreas de actuación del Gobierno, resulta procedente efectuar la adscripción de servicios traspasados, al órgano de las Instituciones Comunes que ostenta la competencia en dicha materia.

En su virtud, y a propuesta del Consejero de Política Territorial y Transportes, previo acuerdo del Consejo de Gobierno, en su reunión del día 4 de Junio de 1985.

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se adscriben al Departamento de Potítica Territorial y Transportes, las competencias, servicios, personal, bienes, derechos y obligaciones traspasados de los Territorios Históricos de Guipúzcoa y Vizcaya, a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de Transportes, en los términos y condiciones contenidos en los Acuerdos y Anexos de la Comisión Mixta de Transferencias aprobados en virtud de lo dispuesto en los Decretos 47/1985, de 5 de marzo, y 57/1985, de 5 de marzo.

*Disposición Final.*– El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de Junio de 1985.

El Lehendakari.
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Política Terrritorial
y Transportes,
JOSE RAMON ESTOMBA GOIKOETXEA.